

Gure enpresaren jarduera gure bezeroen beharretara egokitutako musikoterapia-saioen diseinuan, garapenean eta kudeaketan oinarritzen da, bereziki haurren osasun mentalean. Tratamendu pertsonalizatuak, arreta eta etengabeko prestakuntza eskaintzen ditugu, eta marketineko eta administrazio teknikoko estrategiak gauzatzen ditugu gure zerbitzuen kalitatea bermatzeko.

Garrantzitsuak direnak hauek dira:

1. Musikoterapia saioak diseinatu, garatu eta kudeatzea

- Programen diseinua eta garapena: Musikoterapia programak bezeroen beharretara egokitzea, hala nola, haurren osasun psikikoak edo bestelako erronkak kontuan hartuta. Helburua tratamendu pertsonalizatuak eskaintzea da, bezeroen beharrak eta helburuak asetuz.
- Musikoterapia saioak gidatzea: Saioak formatu indibidualean eta taldekoan.
- Musikoterapia saioetan parte hartzea: Haurrek musika tresnak jotzen, entzuten eta beste ariketa terapeutikoak egiteko aukera izan dezaten.

Gure saioen antolaketa: Saioa baino lehen, terapeutek programa haurren behar espezifikoetara egokituko dute, haien osasun mentala eta beste erronka batzuk kontuan hartuta. Haur bakoitzarentzat helburu pertsonalizatuak ezarriko dira. Ondoren, agurra eta terapeuten eta parte-hartzaileen aurkezpena, gero saioaren eta bere onuren azalpen labur bat aurkeztuko dugu. Beroketa egiteko, arnasketa eta erlaxazio ariketekin musika leunarekin hasiko gara.

Jarduera nagusia:

- Banakako saioa: instrumentuak erabiltzea, hala nola danborrak eta marakak, erritmoak esploratzeko, inprobisazio musikaleko ariketak, eta hainbat musika-generoren entzute aktiboa, sortzen dituzten emozioei buruzko eztabaidarekin
- Talde-saioa: musika-pieza bat elkarrekin sortzea, erritmo-jokoak eta talde-koordinazioa, eta kantuko eta mugimendu sinkronizatuko jarduerak.

Itxiera eta gogoeta egingo dugu hausnarketaren bitartez.

Banakako hausnarketa: saioan izandako esperientzia eta sentimenduei buruzko eztabaida, etorkizuneko saioetarako helburuak ezartzea, eta parte-hartzaileei eskerrak ematea eta saioaren laburpen labur bat.

2. Ekipamendu eta instalazioak kudeatzea

- Ekipamendua mantentzea: Musika tresnak eta teknologia egoera onean mantentzea.
- Instalazioen mantentze-lanak: Gela eta zentroa garbi eta eraginkor mantentzea.

3. Bezeroentzako arreta eta prestakuntza

- Harreman pertsonalizatua: Familiak eta bezeroak informatu eta laguntzea, saioen helburuak eta aurrerapenak azalduz.
- Prestakuntza eta tailerrak: Bezeroei musikoterapiaren onurak irakastea eta erabilera ikastaro edo tailerren bidez sustatzea. Honela, haien ezagutza eta esperientzia hobetzea da helburua.
- Feedback-a eta balorazioak jasotzea: Saiotako aurrerapenak eta bezeroen iritziak kontuan hartzea, programak etengabe eguneratzeko eta zerbitzu kalitatezkoa bermatzeko.

4. Etengabeko prestakuntza eta garapena

- Musikaterapeutek eta langileek etengabeko prestakuntza jasotzea, azken aurrerapenak eta teknikak barneratuz, eta zerbitzuaren kalitatea bermatzeko.

Bigarren mailako jarduerak hauek dira :

5. Marketing eta komunikazioa

- Komunikazio estrategiak: Webgune, sare sozialak eta bestelako kanalak erabiliz, zentroaren zerbitzuak eta musikoterapiaren balioa komunikatzea.
- Promozio kanpainak: Zentroaren zerbitzuak sustatzeko estrategia eraginkorrak garatzea, ikusgarritasuna handituz.

6. Administrazioa eta kudeaketa teknikoa

- Sistema informatikoen erabilera eta mantentzea: Erreserbak, ordainketak eta informazio guztia kudeatzeko softwarea erabiltzea.
- Arazo teknikoak konpontzea: Ekipamendu eta sistemetan sor daitezkeen arazoak konpontzea.
- Eguneroko administrazioa: Bezeroen saioen agenda kudeatzea, fakturazioak eta kontratuak modu eraginkorrean kudeatzea.